

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

331n. zenbakia

2007 urrilla



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

2007-2008 IKASTURTEA

BIZKAIERA 40. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 135 €

Izena emoteko tokia: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 8'AN

40.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 135 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 8 DE OCTUBRE

EUSKAL ASTEA

2007-11-19: **Legarreta'tar Asier'ek:** *Guda-aurreko bertso gintza*

2007-11-20: **Olazar'tar Martin'ek:** *Euskal abizenak*

2007-11-21: **Atutxa'tar Paul'ek:** *Euskalerrriaren askatasuna (1)*

2007-11-22: **Uriarte'tar Ana'k:** *Umandi internetean*

2007-11-23: **Atutxa'tar Paul'ek:** *Euskalerrriaren askatasuna (2)*

Euskerazaleak



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:
– Ipuñiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuinak asmatuikoak edo erriari batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2º eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan.

– Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro 4.ª 120,20 euro

2.ª 240,40 euro 5.ª 60,10 euro

3.ª 180,30 euro

– Ipuñiak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

– Epea zemendiaren 30'e an amaituko da, eta aurtan ez da luzatuko.

EUSKERAZALEAK

7.-LENENGO EUSKO JAURLARITZA

(Berasategi-Domingez)
(1936'KO Guda Euskalerrian)



*Jose Antonio Agirre'ren ziña
Gernika'ko Batzar Etxean.*

*“Jaungoikoaren aurren apalik
euzko lur gaiñean zutunik
asabearen gomutaz...
zin dagit”*

Euskaldunentzat larri-une aundia izan zan. Alde batetik demokrazia ta erkala egozan eta bestetik matxi-no ziranen katoliku-izena. Aukeraketa egin bear zan eta euskaldunak demokraziaren alde jarri ziran, zalan-za aundiak izan ondoren.

Ba-dakigu Erroma'ra joan zirala oitura zuzenen aldeko eritxiaren billa eta artu eben erantzuna ez zan ona izan. Alkartu zein tekeze ezkerrekoakaz, baiña galdu egingo dozue.

Ez da aitzu bear gaiñera, Irujo erkalaren ministro zala.

Erkalari baietza emon jakonean, Madrid'en onartu eben gure Araudia, lege zarretan oiñarritua, nai izan ezkerreko Nafarroa be orra sartzekotan eta ekonomi-itu-nak aurrera jarraitzen ebal.

Guda asita egoalako ezin izan zan euskaldunen Lege-Batzarra edo parlamentua aukeratu eta aldirako lege baten bidez onartu ziran Lendakaria ta sailburuak. Gernika'n batu ziran joan al izan ziran udalkideak eta aukeratu eben Jose Antonio Agirre lendakaritzarako eta onek zin egin eban, alboan agertzen dan argazkian ikusten dan lez.

Jaurlaritza onen kidekoak, geienak erkal-zaleak ziran, baiña lau EAJ/PNV koak: Agirre, Leizaola, Monzon eta Heliodoro de la Torre.

Eritxi ez bardiñetakoak izan arren, ondo alkartu ziran Euskadi'n guda amaitu arte. Osasun. Sailburua Franco'tarrak arrapatu eta su-izkillatu egin eben.

Laster asi ziran lanean euren esku euken lurraldean, geiena Bizkaia.

Gudaritza gertatu eben 45 000 gudarigaz, polizia be bai, dirua atera eben, pasaporteak emon, ikastetxe nagusia eratzen asi ziran medikutzagaz, ikurriña onartu (len Bizkaia'koa zana) ereserkia EAJ'rena zana, lege-bidezko izparringia...

Ertzaiñak laster asi ziran lanean eta Euzkadi onune edo oasi bat biurtu zan giro latz aretan, naizta Bilbao'ko espetexeetan ilketan izan 1937-01-04'an. Bilbao'n bonbaketa bat izan zanean kaleetan arriskuan egozan, espetxeko arerioak arriskurik ez eukala jakiñik, bertara joan eta espetxeratuak eta zaintzailleak jaramon aundirik egin barik, ilten asi ziran. 220 il ebezan egun baten. Nortzuk ziran iltzaille oneik? Bilbao'ra batez be Gipuzkoa'tik, etorriak.

Au da Eusko Jaurlaritzaren orban bakarra eta euskaldunak ez eben ori ukatu. Batzuk Monzon'en burua eskatu eben, baiña Agirre'k ez eban kendu bere lekutik. Ajuriagerra kentzearen aldekoa zan.

Dana dala, Euskadi'n ez zan jokatu beste leku batzutan lez. Eleizai itzaltasuna izan jaken eta zaindu, gizartean ez zan iraultzarik gertatu eta beste iñon baiño politika-askatasun geiago egoan emen.

Olazar'tar Martin'ek

ILARREGIKO ERROTAN (1933-2001)

ZELESTINA HUALDE

TRANSMISOREA: Zelestina HUALDE
(ILARREGI 1915....)

TRANSKRIBATZAILEA: Miren Lorea PAGOLA
(IRUÑA 1986....)

GALDERA: -Gogoratzten dituzu, zure txikitako urteak.?

ERANTZUNA: -"Nere bizie izan dude tristia, ez da kontatzeko, zenbait aldiz egoten naiz pensatzen:" bearra" zer den. Ori, ori nik ori erraten dut . Leenago ere gizon bat bere semeari erranen zion: "segizak, ik ortik ni joanen naun gero atzetik, guaye, bearra an egoin duk ta arrek erakutsikoin nola egin lana., Joan da gizona, -an inor ez atezatzen. "Bearrik" eta ez "bearrik" eta berak kargatu karrua, gero etorri omen zen semea.

- Zer, eldu iaiz.?

- Bai.

- Joan duk bearra, joan duk...

- An ez duk inor agertu ez, neronek ...

- Ori duk bearra, ori...-

GALDERA:- Ezkonduko zinen oso gazte, ez?-

Ni gaztea, demasiau, emeretzi urtekin, emeretzi bete gabe, emezortzi urtekin esposatu eta urte terdin buruan izan nuen semea, orain il dena, eta gero bertze lau, bortz. Txikienak zuen amarilebete u hola il zenean senarra. Gelditzu nintzen bortzekin.

GALDERA: -Senarra, nola iltzen?

Orduan ez zen oraingo mediziñik eta gauzak ez zen izaten, eta erran zioten urea, zer ala izaten zen ori ez dut orañik entenditu nolakoa den. Galde egin diotet aunitzei ia zer gaitze den ori baño ez dire inor ematen erresultadoik orrenik, denbor oketan ez da duikabe, orduen mediznik ere guttiago, etzen izaten.

GALDERA:-Zer urtetan izango zen gutti gora bera?

ERANTZUNA:- Ni beño doble urte, berrogeitamar urtekin.

GALDERA: - Zu errotari izanen ziñen?

ERANTZUNA:- Bai, eziguten uzten, gero prezintatu egin zuten errota, -badakizu zer den prezintatu?

GALDERA: -Eta ori, zergatik?

Ni preziso bear nuen, umeai emateko. Itten genuen, banuen labia andia, egiten nuen neronek obia majo. Iriñe egiten nuen neonek, pasatu sare batean, masa, orantza, oratu ongi eta gero oial garbi batean tapatu, ez dakit zenbat ordu pasatzen zuen an, gerio orantza sartzeko . Leku ori zen "ORAMAIE", ora-maie euskaraz erraten genion euskaraz, Gero egin bear genuen labia bistu, bota abarrak wta gorri gorri egiten zuenean ore zera batekin, brasado-

re batekin dena krri onsts eta garbi garbia utzi labea eta ladriluek, ladriluek izaten ziren, orantza ore egiten genuen pusketa eta egin ogie. Ume guziei olaxeko bollo-tuana, bortzai, denei. Umiandako bi olaxe, adartto itten zituen, politiago egiten zituela, matten nion olaxe gorringo pisko bat, ola gañetik, goxoago, obieci igual, obiak egiten giñuzen, zortzi egun, aste guzietan, etxerako bakarrik.

GALDERA: - Iriña saltzen zenuen?

ERANTZUNA:-Iriña, saldu ba, io erreguei kentzen genion almute bat, laka zen (el sueldo), ogeitabi kilo erregue, orrekin etxerako egin iriñe; orrekin bizi nintzen ni, atra bortz ume orrekin. Iñork ere ez zidan lagundu. Ama bizi zen bertze etxe batian, errian iñork.

Ez zen libre molitzea, neri kartzelera zieten. Zer eman bear nioten ni yatera ume auei, ume auei e3man bear zaiote yatera, ta nolabait ere, sea lo que sea, ni beti, gau ta egun beti molitzen aitzen nitzen, ure ere gutti xamar, baltsa egiten zen bajatu bajatziakin, errota ez da ibiltzen, urek ez badu ez da ibiltzen, eta ni an gauez molitzen, "porronpon, porronpon", eta orduen gauez ibiltzen zen yendea, beldurrez, ez bait zen libre, beldurrez ibiltzen ziren kartzeko ere errotara, beti gauez torri. eta ni itxi atariak. Atariak jo, eta non eldu zela olakoa, guardia zibil zela ematera, poliziak, guardia zibil parejakin goizeko ordu bietan, eta nik iriki ta oi, oi!!, kortaturik gelditu nintzen, - qué hace Ud.?. Ya ve Ud. lo qué hago, ya ve...la necesidad obliga a todo.-Pero, no tenía Ud. precintado el molino, me díjo. Si tenía precintado, pero yo no tenía más remedio que abriri y moler y hacer pan pa los hijos, de mí no me acordaba, quería dar a los hijos de comer., y tenía que romper el precinto y que sea lo que Dios quiera. -Mal hecho!!. - Ya sé que está mal hecho, pero tambien la necesidad obliga, le díje"

-Denunziatu eta kartzelera eman, zer uste duzu nola ibili naizen ni, bortz ume utzi etxean negarrez ta eman zidaten kartzelera. Botz ume, txikie petxuan.

Seme-alabak azi zirenean, bata arata bertzea onata, ebaztera diru piskuat, ni bakarrik etxean gelditu nintzen seme zaarrenakin, orain il den onekin, ori bete nerekin, umeak beti lanera, orain ere lanera joaten dira, semea bertzea kamionakin lanean.

GALDERA - Ilarregitik Mirandara, nola etorri zara, ba?-

ERANTZUNA: - Erran dizut, egin nuen kadera autsi, ziren Nabidadeak, alaba zarrena Iruñan bizi da baakarrik dago, trabajutzen du Hotel Tres Reyes, treinta años, orain ditu irurogei ta lau urte.

ZELESTIÑA HUALDE

SOLIDARIDAD DE TRABAJADOS VASCOS EUSKAL LANGILLEEN ALAKARTEA (E.L.A.) (GASTEIZ EN 1930)

Gasteiz'ko langilleak onelan banatuta egoazan sindikatoetan 1930n. urtean: UGT-1500, CNT-1000, Solidaridad 1 500, katolikuen gizarte-etxeak 500.

1931n. urtean, urrillean batu giñan batzokian 47 langille eta egin gendun gure taldearen Solidaridad de Trabajadores Vascos edo Eusko Langilleen alkarte (ELA) ren araudia eta arduradunak izendatu be bai.

Gauza bat bai lortu gendun gasteiztarren pozerako: oker-bidez egiten ziran lan-izteak edo uelgak kentzea. Gu barik ezer be ezin egin leikeen besteak. Ba-geunkan indarra! Eta ori, lortzeagaz asko irabazi eban gure alkargo edo sindikatoak eta 1932n. urtean 2000 bazkide eukitera eldu giñan.

Ekintza ederrak bete genduzan Maeztu'n, Añana'ko Gatzaga'n, Errioxa'ko Villabueba'n, El Ciego'n, Araia'n, Agurain'en, Kanpetzu'n, Pobes'en, Audio'n, Amurrio'n, La Guardia'n, Murgia'n, Gasteiz'ko Ajuria lantegia'n... Ajuria lantegia'n, esaterako, sendiari dagokion lantaria, irabazietan partaide izatea, jai guztiak jai egitea... lortu gendun. Eleiz irakatsietan agertzen ziran aurre-rapen guztiak ezarten alegindu gintzazan.

Edozer egiteko beste alkargo guztiak gugaz kontau bear eben. 1936n. urtean astebeteko lan-iztea eratu gendun eta bota ebezan langilleak barrero artzea be lortu zan. Umeentzat euskal eskola kristiñaua (Ikastolea?) be sortu gendun eta 60 ume geunkazan.

Baserritarren alde be jokatu gendun salerosketak alkartuta egiteko, ongariak batera erosteko, lanabesak merke lortzeko eta kutxen mailleagoak eskuratzeko...

Karlistak be sortu eben 1934n. urtean "Nekazarien eta aberedunen alkarte" baiña ez eban izan urtebeteko bizia be.

Solidariaok batzar bat egin gendun Donostia'n 1936-07-19'an. Neu joan nintzan arabarren izenean. Oraindiño ez geunkan guda sortu-barriaren barri aundirik, arik eta danbadak entzuten asi-arte.

Gasteiz'en eskoitarrak arro agiri ziran: Irabazten ebenean, batzokiak kendu egingo ebezan, abertzaleen ondasunak eskuratu, abertzaleak erbesteratu, Gotzaiña be erbesteratu, abade abertzaleak Extrenadura ta Andaluzia'ra bialduko ebezan, seminarioa itxi...

Eusko jaurlaritzaz sortu zanean, zemendian, solidarioak gudara sartu barik gengoan eta erabagita egoan batalloiak politikako alderdietatik aterako zirala, baiña beste sindikatoak orretara sartuta ikusi genduzalean, guk, solidarioak, be iru batalloi eratu genduzan, bi fusildunak

eta bat zapadore edo lur-eragilleena. "Eusko Langillea" eta "Landeya" aldizkariak argitaratzen asi giñan.

Guda asi zanean 40 000 bazkide giñan ordaintzen gendunak, guztiz 60 000. Lantegietan gudarako izkilluak gertatzen gau ta egun egiten gendun lan.

Uztailaren 21n. egunean Irujo'ren agindua artu neban Martires'era joateko eta gero Bergara'ra ta Arrasate'ra be joan nintzan baituta egozanai laguntzeko. Eibar'era be bai osaba-izekoak ikusteko. Bergara'ko alkateak nik Martires'en taldea sortzea nai eban. Euskal-zaleen etxetik urten eta "Gure etxea" idegi gendun. Gorriak abadea baitu nai izan eben gure aurkako eritxiak eukazalako, baiña ez neban itzi ori egiten. Abadeak bere burua gaiso egin eban, baiña atera gendun bere etxetik gutzat mezea egiteko.

Andin Elgeta'ra, Elorrio'ra, ta Durango'ra joan giñan 80 gizon. Emen gengoan lenengo bonbaketa egin ebenean. 17 il ziran.

Durango'ko espetxean eskoitarrak egozan baiña abertzaleak ziran zaintzaille. 25 il ebezan gorriak itaunketa egiteko daroezala esanda. Bombaketak beti eukiten eben olako ondorena. Abertzaleok zaindu genduzan lekaimak eta francotarrak ziranen sendiak be bai. Neuk be amar gau egin nebazan olakoak zaintzen Barrutieta sendiaren etxean.

Durango'tik Bilbao'ra joan nintzan solidarioen idazkari.

Irujo'k dei egin euskun, bera ministroa zan lez, baste ministroakaz batera jokatzeko, alkartuta Rusia'ra joan geintezan, eta joan be egin giñan, baiña bigarrenez deitu euskunean atxaki bat ipiñita, ezetza emon geuntsen. Rusia'ren jokabidea ez jakun atsegin.

Bilbao'tik urten eta gero gure zeregiñak oneik izan ziran: Gure iru batalloiak batu, solidario zaurituak osatu, arduradunak erbestera baildu eta gure erakundearen alde ekin.

Agustuaren 22n. egunean solidario guztioi agindu euskuen Laredo'ra joateko eta orrelan egin gendun. 24n. egunean Santoña'ra joateko esan euskuen andik erbestera urtengo gendula-ta, baiña 17 baiño ez ebezan artu.

Julio Valdivielso'k

Biarritz'en izenpetu eban agiri au eta Barandiaran'ek batu ebazan 136 agiriaren artean dago (1937-11-22)

Olazar'tar Martin'ek

17.– MELEAGRO TA BASURDEA (Kalindon)



Bein baten Kalindon eritxon lur-aldean basurde aundi ta bildurgarri bat agertu zan eta basurde onen bildurra zabaldu zan ingumari guztian, uzta guztiak ondatzen ebalalako eta gaiñera ipinten eutsoezan esi ta traba guztiak zapuztuten ebalalako..

Bere aurka joan ziran eiztaririk geienak il ebazan eta bizirik gelditu ziranak ez euken adorerik barriro bera eizatzer joateko.

Bertako bizi-lagunak ba, basurdea etorrela entzuten ebenean guztiak iges egiten eben.

Diana, eiztarien jainkoak bialdua zan basurde ori. Bertako erregeak eskiñi bear eutson oparia eskiñi ez eutsolako.

Nekazariak jainkoagana joan ziran, oraingoan opariak eskuetan ebezala, basurde ori eurakandik urrintzeko berobero eskatuz.

Bitartean Meleagro erregeak eiztari eta gudagizon guztiak eskatu eta eskatu ebillan, basurdetzarra ilten lagundu ekioen.

Eneo erregearen eta Altea´ren semea zan Meleagro adoretu au..Gizon trebe ta ausart asko batu ziran Meleagro´ren aurrean.

Eiztari orreikaz batera etorri zan Atalanta neskatilla adoretua, ederra eta txarmanta be. Atalanta au Diana´ren adiskide aundia zan eta iñok ez ekian argi noren alabea zan. Bere gurasoak basoan itzi ei eben eta artz batek artu eta bere umeakaz batera azi eban. Dana dala laster maite-mindu zan Meleagro Atalanata´gaz Baiña Altea erregiña ama artega egoan: Onek aurra izan eta laster ikuskizun bat euki ei eban: Iru balbe-irule agertu jakozan eta oneik esan eutsoen surtan egoan illentia erreten zanean ulertuko ebalaja jaio-barriaren bizia.. Ikuskizun ori amaitu zanean, oetik jagi eta sutondora joan zan eta illentia surtatik atera eta urez ondo itzali eban eta gero kutxa baten gorde eta giltza berak jaso eban.

Gertatu bearrekoak ondo gertatu ondoren, joan ziran eiztariak eizara, zaldi-gaiñeetan, basurdearen billa.. Aurretik joiazan Meleagro ta Atalanta. Sartu ziran eiztariak txakurrakaz baso-barrura eta agertu zan basurdea txakurren ausiak izututa. An batu ziran beste eiztariak be basurdea garbitzeko.

Zauritu eben basurdea eta agotik bitza dariola anker erantzuin eutsen eta gizon asko ondatu ebazan. Gero zuzen joan zan gazte bien aurka su-ta-gar. Meleagro belau bat lurrean eta azkona eskuetan ebazala jarri zan eta

uztai lokarriari tira egin, jaurti basurdeari gezia eta biotzeraiño sartu eutson. An jausi zan anka gora basurdea, orroa ikaragarri bat eginda.

Burua ebagi eutsoen basurdeari eta narrua kendu eta burua ta narrua Atalanta´eri emon eutsozan. Meleagro´k bere maitasunaren ezaugarri.

Meleagro´ren osaba biak, Altearen nebak, ez egozan pozik. Eta Atalanta´ri kendu egin eutsoen Meleagro´ren opari. Asarratu zan Meleagro, artu eban uztaia eta osabai gezi bana jaurti eutsen eta biak il ebazan.

Altea erregiña zoratu egin zan barri orreik entzun ebazenean, joan gordeta eukan giltzaren billa, eta kutxa edegi-ondoren, enborra surtara bota eban eta enborra beingoan jarri zan sutan, dana auts biurtu arte.

Meleagro zutunik egoan osaben gorputzai begira bekoki illunagaz eta aienaka asi ei zan biotza eskuakaz estututa. Atalanta joan jakon laguntzera, baiña alperrik, antxe il zan Meleagro.

Orrelan bete zan Altea erregiñeak ikusitako ikuskizun baltza.

Altea, asarrea igaro-ondoren bere onera etorri zanean, konturatu zan berak il ebalaja bere semea anaien eriotzearen barriak emon eutsoen naigabeak nastauta. Kokildu zan egindako okerragaz eta txarragoa egin eban: bere buruari bizia kendu.

Olazar´tar Martin´ek

URTZI TA LAUBURUA

“SABEISMU” IDEIEN AZTARRENAK

Sabeismu delako ori zer dan? Ba, gure goi-sapaigune urdiñeko izarki dizdiratsuetan munduko zenbait gertakizunen (gertatu bearrekoen) erraiñua ikus-uste oi dutenen dotrina-edo dugu.

Antziñate gandutsu batean, Arabia urbilleko Saba eskualdean sortua, uzkurtz-ertzez itxuratutako sabeotarren gogai auek oso zabaldua zeuden.

Astrologiarekin zer-ikusirik? Ez dakit nik. Baiñan, izar argitsu ta mugikor bati jarraika Belen'en Jesus Aurtxoari aurkeztu zitzaizkion iru-edo errege-azti aiek, gizon aditu ta jakitez ornituak zinki, astrologo edo-ta sabeistarrak ote ziran?

AZTIKETAN

Gizaldien joanean galduxe ageri zaigu izarkierakiko eraspén bitxi au, baiñan oraindik ere ongi dakigu zenbateraiño garrantzia damaioten zenbaitek izarkien arteko jarrerari. Emendik sortu zitzaigun garai zar batean Zodiakoa, zeru-gerriaren amabi izenez apaindurik. Aztigarle askok, iruxurtuak izan nai dutenen irrikak (au edo-ta bestelako gertakizunen goraberak jakin-naiak) auen ziskuak arintzen, diru-ordaiñez aztiatzen ta ase-erazten alegia, euren alegiñak iaioki egiten dituzte.

ANTZIÑAKO EUSKALDUNEN JAINKOA: URTZI

Euskaldunen jainko zarretaz ez digu Edestiak ezer esaten. Baiñan zertarako eman zigun Jainkoak irudimena, espiritu-egoz noranai urruntzeko baiño? Bai, irudimenak olerkiz jazten ditu pozaldiak, goxatzen naigabeak, zerukoitzen oiñaze berberak ere.

Bai al dugu euskaldunok sabeismu dalako orrekin loturaren bat, ikuturen bat, zerikusi urruntsuren bat? Elezarretan jaulkitzen zaigun bezela, lenaldi odeitsu aietako gure euskal arbasoak ez al zuten ba illargi beteko gauak dantzaketaz jaitzen?

Gure asaben animak, goi-goiko zerbaiten egarriz bizi ziranik nork uka dakiguke? Zer edo norbait aaltsu jauretsi bearrean aurkitzen ziran. Eta Izadian zer edatsuago, zer nausiagorik zeru-goia baiño? Eta orra URTZI, zeru-sapaia, eguzki jainkoaren egoitza (gaur ostiral-ortziral astegun-ize-nez iraun-erazia). Lurra berotzen, alorrek garaztatzen, ekaitzak sortarazten... Dana goitik zetorkien. Nork gaindu urrezko boronbil orren indarra, aunditasuna? Eguzki zerutar ori jauresten zailla nunbait eta indar-maillan beko bat, eguzkiaren erraiñu edo islada uste zuten Ilargi irripartsua artu zuten solaskide. Eta emendik ari opaldutako dantzak ospaketa gau berezietan.

LAUBURUA

Len-sabeismu aren aztarna ez da Urtzi gaurdaño eldu zaigun izen edo oroipen bakarra. Orra lauburua. Arkeologa-

ri ta etnologariak Europa osoan zear India'raño ikusi dute besoz okertutako gurutze au, an-emengo arri zaar-zaarretan ildoskaturik. Zenbait ikertzaillek “lau izpien kurpilla” deitu oi diote, eguzkiaren adierazpena omen da-ta, edo-ta Lurra- ren mugimenduaren idurikapena eguzki-inguruan. Beraz, erririk zaarrenen ezaugarria dugu eta ontan bat datoz danak. Ez da beraz, jermaniar ikurra, ez ariotar-ikurra, pre-ariotarra baiño. Eta ario-aurretikoen erririk ez da euskaldun erria baizik.

Guda-aurretik, euskaltasunaren piztualdi artan, abertzale-ikur edo ezaugarritzat artua, ikurriñen aga-buruetan asko ikusi oi zan. Orregatik, diktadura-urteetan etzegoan agirian jartzerik. Kuadrata ere erabilli oi genduan. Gaur, berriz, Alemania'ko nazitarren ikur zanez (Dabid'en izarraren aurkari) ez dugu ikusten, naiago bait-dugu lerro borobilleko lauburua, lau kakotx edo komaz eratutakoa alegia.

GURUTZEAREN BESOAK

Gurutz-besoak noruntz jartzeak ba omen dauka bere esan-nai berezia. Beraz, besoak eskubiruntz ala ezkereruntz? Nere senitarteko batek (filosofu naturalista eta primitibista bera, lauburua gizakiaren edo-ta izadiaren sinboloa ekin-bidean ikusten duana) sinbologia oso aintzakotzat artzen digunak, ezkereruntz bear duala esaten du zorrozki. Ez luke berak eskubiruntz zuzendutako lauburu-azpian lasai lo egingo, ezta onelakoren bat kolkoan zintzilik eramango ere.

Ezkereruntz baierako (+) era omen da, bizitzaren ikurra ekintzan. Eskubiruntz, berriz, eriotza adierazten omen du, bizirik eta ekintzarik eza; eta ezerako (-) ikur danez, adur txar irudia dugu eta onen eragiñak ezin onik ekarri, gaitza baiño.

Bein, Caracas'en, eta bertako aditu batek (azken gerra-teari buruz Unibertsitateko areto nagusian izlari) nazitarren “svastika” aipaturik, Alemania'ri guda galtzea zegokiola esan zigun. Zergatik? Ba, Svastica ezerako eran zerabilkiak. Eta irain aundiagorik! Arriturik utzi ninduan ez dut beñere aaztu.

Ipar-Euzkadi'ko kanposantu-illarrietan beti eskubiruntz xixelaturik ikusi oi ditut, eriotza adierazirik noski. Kutxatan, bi lauburuak agertzen diranean, ezkerrean dagoanak ezkereruntz begira oi du; eta eskubikoak, eskubiruntz.

“Svastica, vasco, eusko” iru itz auetan, itz-sustrai bera aurkitu oi dute batzuk. Esangarririk bai ote? Izan ote zuan euskal ikur onek, antziña urruntu batean, erlijiozko esan-nairen bat, filosofiazko naiz naturalista? Beste zerbaiten adierazpide ote zan? Atal-buruetan, argizaioletan, erredizetan, e.a. zergatik jartzen ote ziguten?

Orra ba, misteriozko eta mitologizko ikurra.

Egaña'tar Gotzon'ek

ORIXE (Nikolas Ormaetxea) (1888-1961)

Gipuzkoa'ko Orea errian jaio zan eta Añorga'n il Orixe deritxogun euskalduna eta idazle aundia. Umetan Naparroa'ko Uizi'ra eroan eben eta an azi zan. 17 urtekoa zala josulagunen artera sartu zan eta Loiola'n nobiziadua egin, Burgos'en klasikuak ikasi, Oña'n filosofia iru urtetan. Lagun izan eban Zaitegi eta aurten jaiotzatik eungarren urtea ospatzen jakon Lauaxeta. Onek zori txarra goa izan eban.

Comillas'en, Carrion de los Condes'en, Muskaria'n eta Xabier'en irakasle izan zan eta 1923n. urtean urten eban Jesus'en Lagundi'tik.

Azkue'k artu eban lagun zortzi urtetan baiña 1931n. urtean bere etxera joan zan Euskaldunak olerki ederra idaztea amaitzeko.

Gudaldian bereak eta bost ikusi bear izan ebazan eta Frantze'tik Ameriketa'ra joan bear izan eban (Arjentina, Txile, Peru, Bolibia, Salvador izan ziran bere egonlekuak

1954n. urtean etorri zan andik eta azkenean Zabalegi'n bizi izan zan.

Komillas'en irakasle zala egin ebazan lenengo olerkiak, itzaldiak egiten eta izparringietan idazten be ugaria ta ona izan zan.

Ona emen bere idazlanik ezagunenak:

- 1.- Elertiaren edestia.
- 2.- Santa Kruz apaiza.
- 3.- Tormes'ko itsu-mutilla.
- 4.- Mireo.
- 5.- Barne-muiñetan (mistika).
- 6.- Urte guztiko meza-bezperak.
- 7.- Euskaldunak.
- 8.- Kito'n arrebeagaz (mistika)
- 9.- Augustin deunaren aitorkizunak.
- 10.- Lau ebanjelioak.
- 11.- Salmoak.
- 12.- Jainkoaren billa (mistika)
- 13.- Latiñaren joskerea.
- 14.- Euskal izkera.
- 15.- Euskaldunak poema (699 orrialde)

IRITZIAK: 1.- Alzola'k: Orixe aztertzen asi baiño ez gara egin.

2.- Ibiñagabeitia'k: Meza-bezperak "iñoz sortu dan eleiz-libururik bikaiñena" euskera errikoa ta aberatsa.

3.- Mitxelena'k: "Euskaldunak poema... gure artean ondu dan ederlanik larriena."

Eta, amaitzeko, ona emen bere olerkitxu bat:

Elurren zuriak
atsegin ematen,
baiñan arpegi ori
atsegiñago den.
Ene! Laiño beltza
lurrera jetsiten...
Elurren zuria
bereala jaten.

Zergatik artu den
besteren esana?
Laiño arnas itzak
beztu au, laztana.
Ez den etorriko
iñor iregana:
neretzat ere ez aiz;
biontzat, au lana!

BUSTINTZA 'TAR EBAISTA (1866-1929)

Urkiola-barrenean dagoan Mañari'n jaio zan eta Kirikiño artu eban goitizenez.

Lenengo ikasketak errian egin ebazan eta gero Durango'n.

1878n. urtean Almansa'ra joan zan sendi osoa. An amaitu ebaza 1º maillako ikasketak eta batxillerra ikasnota onakaz.

17 urtekoa zala Madrid'era joan zan goi-maillako ikasketak egiteko

1811n. urtean Siguentza'n egoan matematikak irakasten.

1899n. urtean pozik etorri zan Bilbao'ra eta arrezkero emen bizi izan zan.

Azkue'k artu eban lagun, aldizkaria zuzentzeko.

Irakasle lez ona ta bizkorra izan zan, irakasle baiño lagun geiago.

Azkue'ren orde zegoan lau urtean Aldundiaren ikastolan eta gero beste ogei urte bere ardurapean. Euskera ez ekien askok ikasi eban.

Izlari lez be ona zan eta jaietan naiz mitiñetan egiten eban berba.

IDAZLE: Idazkera gozoa ta errikoa da Kirikiño'rena Ona emen bere lanik gurenak:

1) Abarrak (1918). Ogeta bat ipuin dira.

2) Bigarrego abarrak (1930) 43 ipuin eta 3 olerki.

3) Abarrak... eta abar (1966)

4) Antzerki-arloan: Anton berakatz, Azeriari azeri, Lelo, Txomin Arraio,, Meza barria.

5) Olerki politak.

Ona emen ipuin baten zatia, zatika aukeratuta:

ATXURIKO "MILAGROA"

Bilbo'tar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, eztakit nongo erritan il zala atso aberats bat eta milla ogerleko batzuk itzi ebazala Bilbao'tar erren edo kojoei bananduteko.

Eldu zan eguna. Atxuri'ko etxe aretan agiri zan atarian mai bat, beronen ganian tintontzia ta ingiak, iru jarleku, baztarran zorro batzuk eta iru gizon piperra baiño serioago.

Asi ziran kojuak agertzen kalian. Geienak makulu bigaz eta anka bat dingiliz.

Iragarrita egoan ordurako, kale guztia aurkitzen zan errenez beterik.

Atea zabaldu zanean, tximista baiño ariñago urten zan andik, zer uste dozue? Zezentxu bat!!.

Nok azaldu an izan zan usubillua... Ango ariñeketak, kojuak izan arren! Kalia makillakaz eta burtxoz beterik gelditu zan... Milagrua izan zan.

OTXOLUA (BERNARDO MARIA GARRO)1891-1960)

Mundaka´n jaioa zan eta umetatik euskerea ondo ikasi eban.

Bilbao´n egin eban Komertzio-karrerea eta 18 urtekoa zala Argentina´ra joan zan. Zazpi urte igaro an eta 1917n. urtean barriro Mundaka´ra etorri jakun.

ZER IDATZI EBAN:

Lenengo euskal liburu eta aldizkari asko irakurri eban eta, beti, esaldirik ederrenak aukeratzen ebazan, baita errian entzuten ebazan esaldirik jatorrenak be.

Orrelan, punterengo idazlea izatera eldu jakun.

Palindromoak dira bare bereizitasunik aundiena. Aurretik atzera naiz atzetik aurrera bardin irakarri leikezan esaldiari emoten jake izen ori eta olakoen moltzo bat, Kirikiño´k eratu eban leiaketa baterako bialdu eban. Orrelan sartu zan idazle Euzkadi aldizkarira, errietako albisteak bialtzeko

Oneik dira bere lanik beiñenak:

- 1.- Bertoldo ta Bertoldin (1932).
- 2.- Biar Donibane´ra (1929) .
- 3.- Barbier´en ipuiñak (bizkaieratuta)
- 4.- Abere-ipuiñak (inglesetik)
- 5.- Euskalerriko abere ta piztiak.
- 6.- Lau Ebanjelioak (Argitaratu barik, Goma´renak)
- 7.- Olerki batzuk (inglesetik eta portugaleratik)
- 8.- Toki-izenak (1958) Amaitu barik itzi eban.

IRITZIAK: Orixe´k esan eban :“Euskalerrri guztiko idazleen artean txukunenateriko bat”

Ona emen zatitxu bat:

Bertoldin´en okerrak

“-Ba-dakit, ene jauna, esan dagitsudanean asarre gorritan jarriko zareana, ta artez be artez egingo dozu. Baiña, ez ete zan obeto izango, edonoren irrigarri izateko gu ona ekarri barik, gure maurtubetan gu bizi izaten iztia, lekubotan ibilteko tentel-ergel batzuk baiño ezkara gu izan be ta? -Baiña zer da mutil onek egin dautsun erakusmeneko okerreri ori?”

Orduan Markolbe´k lotsarren ozta, Bertoldin´ek egiñiko diabrukeri guztiak edestu eutsazan:ugarasijua dukatak urmalera (piscina) jaurti eutsezana;ogiaz be bardin egin ebana, arrañoak urunaz itsutu gura izan zituzana, eta azkenez, kumak aterazoteko antzar lokearen otzaren sartu izan zana. Ezeban bakaldunak barre gitxi egin eurok entzutian! Zati baten ekin eutsan aretara ta azkenian, jezarrita be ezin egonda, jagi zan aulkitik eta oindiño barreka...

Olazar´tar Martin´ek

ESKERRAK	BARKAMENA	OBENA	ORDUA
Eskerrak Jainkoai bizitza eder onen maitasuna gaitik, txoriak bikain dira mendiak maitegarri ederrez ondurik.	Itz ederra berenez barkamenaren soiñu gogoangarria, gizonak gizonari parkatu bear dautso bere txarkeria.	Obena gizonetan gauza kaskarrena da zoritxar gogorrez, iñor iraundutea gauza mingarria da egite okerrez.	Ordu zuzentzaillea ixil ixilik, zoaz gizonen bidetan, jakituri aundia daroazu zuregan ixil ixillean.
Danen erdi erdian gizonak bizi dira kristiñau legian, mendi eta itxaso, zabal zabalik, dagoz bizien aurrian.	Gizonaren biotzak ez dau nai beretzako samintasun gaitzik, ona ta maitasuna ditu bere gogoko biotz biotzetik.	Oben gaiztakeriak biotza ondatzen dau gizonen artean, obenak zapaltzen dau giza bizitz ederra bizien lurrean.	Gizonaren bizia, aurretik, sartzarora doa ixillean, ez dozu zairituten gizonen bizitzarik bizien lurrean.
Aur zorionekoak barrekari dabiltzaz jolasean bidean, egunak egunari dei gozoa dagitzo jolasen aurrean.	Parkatu anaiari zeuri parka dagitzun Jainko Egilleak, parkamen itz ederrak poztuten dau biotza ene aiskideak.	Jaunaren aurka doa giza gaiztakeria Jaun bera iraintzen, giza-seme gaisoa arrokeriz sarritan norbera ondatzen.	Zu, tiki taka, zoaz iñoiz, gelditu barik bizitza aurrian, ume agurtzen da asarretu-bagarik ixiltasunian.

Paulin

MARTZELIÑO GARDE

EUSKARA, NAFARROAKO ERIBERAN

“ZER BERRI”, Iruñean argiataratzen den aldizkarian oso artikulo interesgarriak datoz “El euskera en la Ribera” gai oni buruz. Eta ala dio Marcelino Gardez “Kargaztulun sortua, 1925 urtean”. Euskara berpiztean Nafarroan gerra ondoko urteetan pertsona garrantzitsuenetako bat izan zen. Uztarrotze eta Garden apez egon zen. Erronkariko azken euskaldunengandik bildu zituen ango euskareriko maitasuna. Bere lehenengo poesia erronkarieraz 1954 urtean “El Pensamiento Navarro” aldizkarian, “Erronkariko txoriñoa” izenarekin argitaratu zuen. 1964 urtean euskaltzaina izendatua izan zen, eta 1973 aurrera, “Principe de Viana” aldizkariar arduratu zen”.

Aren elburuko bitzita, esaera onetan betetzen da: “Egiak, askastauko zaitute”. Esaera au anitzetan erabili oi izan zuen- Bertzetik, oso ongi ezagutzen zuen Nafarroa Marcellinok. Ona emen kontatuko dizkizuet gertutako pasadizo batzuk Aren nortasuna ezagutzeko. Kotxe edo berebilla Seat 600 bat zuen, zozketa batean tokatutakoa. Iruñeko irrati batek antolatutakoa, galdera auxe zen: nor ote zekien geien geiena, Nafarroari buruz. Eta ara non, ateratzen duen berak sari ori.

- Bertze pasadizo bat, orain egun batzuk neroni gertatutakoa. Erronkariko emakume ezezagun batekin topatzen naiz Iruñeko Ospitalean, eta ala asten gara solasean, galdetzen diot, nongoa zen, au ta ore,

- Ni, Uztarrotzekoa, naiz...aipatzen du-

- On Marzelino ezagutu zenuen?, galdetzen diot-

- Bai, Ura, beti bere euskarakin, erantzun zidan, “zenbat grabatu ote zion nere amari -...eta gero ara non Aren ileta elizkizunetan jotzen dute nire amak abesten zuen “-AURTXO POLITA” abestia, eta antxe asten naiz oiukatzen, elizan bertan...auxe da nere amaren kanta...!, eta antxe zeuden jendeek erraten didate”.

- Mesedez, zer ari zara...ixildu!

- Nola ixildu behar dut, au da nire amaren abestia...

Gizon honek euskararen aldeko lan arrigarria ulertzeko, eta batez ere denbora zailetan nolakoa zen izkuntzaren giroa eta zein tokitan defendatu zuen euskara jakiteko, joanen gara erriberako euskararen istoria ezagutzera. Orretarako Peio Monteano, istorian doktoredeuna bere ikerkeeta lanetan aurkitu du 1544 urteko dokumentu bat, erregeordeak eginarazitako, Erriberako istoriari, oro har, eta Tuterakoari bereziki dagokion prozesuri interesgarrienetako bat ezagutzeko aukera ematen diguna, oso gutxi ezagutzen den orietakoa. Pirinioetako iparraldean dauden eremu euskaldunetatik etorritako gazte askoren etorrera, alegia.

“Izan ere, Espainiako Inperioaren areriorik andienak ziren Frantziarren eta legitimista nafarren mehatxua zela medio 1544 urtean Tuteran bizi ziren ”frantses” guztien errolda egin zen –“frantsesak”,ots, Frantziako mendeko lurretatik etorritako persona guztiak -.Erriberako iriburu-

ko protokolo artxiboan gordetzen den zerrenda onen bidez, XVI mendeko azken amarkadetan mailarik gorenera eldu zen gertakaria ikus dezakegu (Frantzia astindu zuten erligio-gerren ostean) eta urrengo mende amaiera arte iraungo zuena-

1544an, “fratzen” oriek Zuberoatik eta Nafarro Beheretik (Euskaldunen Lurra ematen zitzaien orduan) etorritako gazteak, ein andi batean gazte oriek 1525etik asita, elduak ziren Tuterara eta Erriberako iriburuan orduan zeuden azienda andietan artzain jardun zuten.

Demografiaren ikuspuntutik, etengabeko ekarpena ekarri zuen etorrera onek eta, izkuntzari begira, aldiz, baita Erribera guztian euskararen presentzia ere. Bestetik, euskara izkuntza zuten Nafarroako iparraldetik edota probintzia euskaldunetatik etorritako populaziaren etorrera ere –detektatzeko zaila bazen ere, au ere etengabeko-orient guztien pretsentziari gehitu behar zaio. Beraz, Zamorako albaitari batek “Erreinuko protoalbeitar” izateko nahia agertu zuenean, nekazari tutetar batek egion zion salaketak ez gaitu arritu behar: “euskaldun batzuek abereak sendatzeko eramaten dizkiotenean oriek ezin ulertzeak, lan andia ematen dio”.

Iparraldetik etorritako jendearen lekuko dira Erriberan dauden abizen asko: Sola, Irisarri, Lakarra, Barcos, Jusue, Baigorri, Busunariz, Oses, Mauleon, Monjelos, Chivite, Pegenaute, etab. “

Eta asieran aipatu dudana bezala J. M. Bidadorrek ikerketa lanak egin ditu gai oni buruz, baita “Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra” liburuaren egileak ere dio, nola XVIII mende arte Nafarroako biztanlego geiena euskalduna zen eta erribera aldera joaten ziren ainbertze ibiltari euskaldun gelditu zen antxe bizitzten. Orrek ez du erranai euskara zera ango biztanlegoen izkuntza arrunta, baino bai onen presentzia nabarmena zela XIX mende arte.

Toponimiari elduz, Jose Maria Iribarrenek bere “Vocabulario navarro” -1952-dio, Nafarroako Zona Media io mndialdea eta erribera separatzen duen lurralde zati ori dela, beheko muga jri daike lerro irregular btean, Vianan asi eta Lazagurria, Allo, Mendigorria, Pueyo eta San Martin de Unx, Casedan buktzen dena. Erri lerro onen azpian dagon zonaldea da Nafarroako Erribera.

Toponimiari buruz In interesgarria Mikel Belaskok egin duena. Toponimia txikian agertzen dira izen euskaldunak bakarrik Bardeetan: Piskerra, Sardazuria, Monteartea, Txindilamendia. Carcastillo aldean eta Aragoi ibaia-aren ertzean XII edo XIII mende arte euskal toponimia zegoen eta orduarte euskara mintzatu zela.

D. Marcellinon ilobian dagon il arria, Berarrek Bardeetan aurkitutako estela da.

Xole Erbiti

ETA 9.-PILIPINIĀK

Formosa'ren egoaldera dago Pilipiñak deritxon ugartedia, eun milla bitarte. 7 100 ugarte dira, geienak km. bat baiño laburragoak. Dana jota, lurrez España'ren erdia inguru dira. 30 milloi biztanle bizi dira bertan, geienak Europa'tik eta Ameriketatik joandakoen ondorengoak. Iru uritan dagoz biztanlerik geienak: Manila, Cebu, Iloilo.

Arrantzaleak eta zurginiak dira asko, baiña geienak nekazariak. Basoak erdia baiño geiago beteten dabe eta balio aundikoak dira. Bitartean lora asko dago, batez be orkideak.

Arroza dabe janari nagusia, artoa, intxaurrak, frutak, kafea, kakaoa, kakauetea eta barazkiak be ugari daukez. Eta piztien artean, txarriak, abelgorriak, auntzak, ardiak eta egaztiak, orein gorriak, basa-katuak, narraztiak eta sagutzarrak Eizagai onak dira aragi ona eta narru ohea daukelako. Emengo abereak Asia'koak baiño txikia-koak dira.

Lenengo biztanleak 1,42 metroko gizon ñañuak ziran, baltzak, adimen laburrekoak, eta orrizko txabolatan bizi ziran.

Lenengo eldu ziranak jentillak izan ziran, euren gorputzak margoztuta, zugatz-gaiñeetan bizi ziran.. Urrengo merkatari islandarrak etorri ziran Oneik izan ziran españatarren arerio gogorrak.

Pilipiñak izena España'ko II Felipe erregearen omezez ipiñi eutsen. Izkelki asko dabez berba egiteko, tagaloea nagusi dala.

Era bitakoak dira biztanleak, batzuk buru-jabe diranak eta menpekoak beste batzuk. Dato deritxo onein nagusiarri eta menpekoen bizia eta gauza guztiak bereak ditu. Gudan baituak izaten dira geienak.

Igorroteak dira kristiñau ez diran talde bat eta mendietan bizi dira eta agureen batzarra dabe agintari. Eguzkia da euren jainkoa eta iretargia onen anaia da. Len buru-eiztari ziran baiña orain nekazaritzan egiten dabe lan. Batzuk txilibitua jotzen dabe, baiña zurretik, beste batzuk buruko ulea kentzen dabe bizarra lez.

Pilipindarrak geienak baketsuak dira, kristiñauak be bai, eta oraingo oiturak artu dabez.

Magallanes ospetsua zan baiña ezin eben ikusi eta naste aundiak sortu ebazan eta sartaldera urten bear izan eban, munduko itxaso guztiak igaroteko asmoz eta 1521n. urtean Pilipiñetara urreratu zan eta gezi bategaz il eben bertakoak. Elkano euskaldunak amaitu bear izan eban itxas-bira osoa.

Berrogei urte geroago Legazpi joan zan Zebu ugartera eta lenengo misiolariak eroan ebazan.



Filipindar neska.

Txina'tar itxas-lapurrak etorri ziran euren junkoetan eta olandarrak be etorten ziran espezien billa. Eta guztiak ziran alkarren etsai. 1762n. urtean Manila inglandarren eskuetra jausi zan eta urrengo urtean barrero España'ri biurtu eutsoen.

Aspaldiko urteetan kolonialismua amaitu eta late-riak jabetasun osoa lortu dabe eta orregaz batera aurrerapenak etorri dira lengo kolonietara: Traktorak, nekazaritzaren ordezkio industria,... sartaldeko jakituria eskuratu eta XX gizaldian bizikera ohea lortu dabe.

Olazar'tar Martin'ek

UMANDI ETA BERE ASMO-IZTEGIA LAISTER INTERNETEN

Iztegilleak ainbat daukaguz gure elertian eta kontuan artu bear dogu idazle onein lana: Eroapen aundiagaz egiña, lagungarri gitxi eskuetan ebezala (esaterako txartelak zapata-kutxetan egokiro ezarrita aurkitzen doguz sarritan).

Oneitariko bat dogu UMANDI, baiña lan berezia da onena itzak esangurari begira moltzotuta daukazalako.

ASMO-IZTEGIA beste iztegi batzuren moltzoa da eta elerti-munduan UMANDI lez ezagutua dan Andoni Urrestarazu´k egin eban lan ori.

Umandi Araba´ko Araia´n 1902n. urteko uztaillaren 16n. egunean jaioa da, sendiz gasteleraz berba egiten eban sendi batekoa izatez, baiña berak euskerea ikasi egin eban bizkaierazko ikas-liburu bategaz, orregaitik dau berak ain maite bizkaierera.

Geroago gipuzkoera eta beste euskalkiak be ikasi ebazan eta bere bizitza osoa gure aurretikoen izkuntzari eskiñi eutson.

Lan asko idatzi ebazan izparlari lez, idazle lez eta izkuntzalari lez. Bere idazkien artean “Gramatika Vasca” goraitatu bear dogu (au euskeraz eta erderaz argitaratu zan).

Bera izan zan lenengoa eta bakarria asmo-iztegi bat idazten. Iztegi onen oiñarria itzen esangurea izango zan eta itz bakoitxaren asierako izkia.

Elebarri bat be idatzi eban “Gentza bearrean” idazpuru dala.

Ain lan aundia egin ebalako 1992n. urtean Euskaltzaindia´ren kideko egin eben, baiña berak ez eban onartu Euskaltzaindi´ra sartzea eta ori bere pentsabideari eta lan-bideari zintzo jarraitu nai izan eutsolako. Bere ustez euskereak ba´dauka batasun bat , baiña ez Euskera batua esaten jakon onetan.

Bere idazkietan euskeraren euskalki guztietako itzak aurkituko dozuz, itz orreik gizon naiz emakume euskaldun guztienak diralako.

Umandi Euskerazaleak Alkartean be kideko izan zan 1968n. urtean asita eta ZER aldizkarian be idazten eban Euskerazaleak eta Euskerazaintzari laguntzeko. 1993n. urteko azaroaren 21n. egunean il zan.

ASMO-IZTEGIA´REN NONDIK NORAKOAK

ALE BI dituan iztegi onetan argitaratu eban lana, UMANDI´k 50 urtetan egin ebazan fitxak alkartzea ta batzea da. Berak iztegi baten antzik ez eutsen emoten fitxa orrei 1983n. urtera arte. Urte onetan jakin eban Raimundo Olabide gasteiztarrak eukala olako iztegi bat egiteko asmoa, baiña ez ebala bete. (1992n. urte inguruan amaitzen da fitxak batzea).

Umandi´k lan aundia egin eban iztegia batzen eta itzak sinonimoak, antonimoak, atsotitzak, aurrizkiak, erdizkiak eta atzizkiak batzeko esku-arteak eukazan liburu oneitan gaiak artuta:

- R.M.´ren “Diccionario Vasco-Español-Frances”.
- Plazido Mugika´ren “Diccionario Vasco-Castellano”
- Pierre Lande S.J´ren “Dictionaire Basque-Français-Basque”.
- Lopez Mendizabal´en “Diccionario Castellano-Euskera”
- Aita Lino Akesolo´ren “Diccionario Retana de Autoridades del Euskera”
- Larrakoetxea´ren “Traduccion de obras de W.Shakespeare.”
- Jaime Kerexeta´ren “Euskal Biblia”.
- Batzuren “Euskerazko senda-jakindi izen.saila” eta “Euskera eta Nafarroa” . .
- Ph.Aranart eta P.Lafitte´ren “Les mots basques groupés d´après le sens” . . De Epherre´ren “Vocabulaire Basque-Français”
- Emilen Aiaga´ren “Lekobide”
- Jokin Zaitegi´ren “Ebangelina”
- Aita Santi Onaindia karmeldarraren “Goiznabar”, “Euskaldunak eta ..osasuna”, “Euskal-eliztia.
- Daniel Landart´en “Ahien ahula “
- Gabirel Jauregi´ren “Pisia”.
- Luis Egia´ren “Neurritzia”.
- Gillermo Larrañaga´ren “Landare-jakintza”.
- Etnografia alavesa´ko 3 zk´an “Ohitura.
- Yulen Olabarria´ren “El valle de Zuya”.
- Lauaxeta´ren “Olerkiak”.
- Josu Exea´ren “Samaniego´ren Alegiak”.

Bere gai guzti orretara sartzeko aukerea izan dogu (400.000 fitxa-inguru dira) eta Araba´ko Foru-Aldundia- ren Agiritegian zainduta dagoz, eta laster oartu gara berak maiteen ebazanak R-M. de Azkue´ren eta Aita Lino Akesolo´ren lanak zirala. Azkenengo urteetan Aita Santi Onaindia´k argitaratutako gaiak artzen ebazan bere iztegi- rako, baiña orregaitik goian aitatu diran idazleak alboratu barik.

Iztegi ori egiteko eredu lez Julio Casares´en iztegi argitaratuak artu ebazan. Onak idatzia zan España´ko Izkuntzaren asmo-iztegia: Itzaren adirazpena artzen dau eta ortik doa itzetik adierazpena (españeran). Beste eredu bat be izan eban: Armand Colin, paristarra (onak frantzeraz).

ASMO-IZTEGIA´k ale bi dauz, baiña benetan iru zati dira. Lenengoa burubidezko iztegia da eta itzak banan agertzen dira (landarak piztiak, eta abar.) eta bigarrean lenengo zati orretako itz orrean adierazpena azaltzen da eta irugarrena euskaldunen atsotitzai dagokiena da.

ASMO-IZTEGIA (ALE BI) ARGITARATZEA (EUSKERAZ BAKARRIK DA)

Iztegi bi oneik 2 000n. urtean argitaratu ziran (ISBN 84.89135-08-8 lan osoa) eta ori egin zan Araba´ko Foru-Aldundiari txartelak emon baiño lenago, (ori ikusi daiteke emen doazen eta esandako Foru-Agiritegian guztien esku dagozan agirietan) argitaratze ori egiteko Eusko Jaurlaritzako Kultura-Saillaren, Araba´ko Foru-Aldun-

diaren eta Gasteiz´ko Udal-Batzaren laguntzak izan ziran (Orretarako eskaria Urrestarazu´tar Miren Terese´k egin-da).


Atera ziran alerik geienak Liburutegietan eta banakakoen etxeetan dagoz banatuta. Ez dago aukerarik idaz-lan au barriro argitaratzeko eta orrelan gaia aztertu gura daben ikasle asko eta asko orra eltzeko aukera bagerik gerazen dira.

Adibide bat:

Familia	Kategoria	Itza	Erderaz	Iturria
Bekozko	izenak	Bekoki astun	frente ceñuda	Eàetana
Bekozko	izenak	Mutuà-bezkeria	ceño, entrecejo	Mujika
Bekozko	izenondoak	Bekoskotsu	ceñudo, suspicad	Eàetana
Bekozko	izenondoak	Ortzadarka	Ceñudo	Mujika
Bekozko	aditzak	Beltzuri-egin	poner ceño, mala cara	Eàetana
Bekozko	aditzak	Beltzuritu	ponerse ceñudo	Azkue
Bekozko	beste itzak	Beltzurika	poniendo ceño, mala cara	Eàetana
Bekozko	beste itzak	-txomoa	sufijo con idea de ceño	Mujika
Bekozko	esakerak	Bekurunde egin	poner ceño	Azkue
Bekozko	atsotitzak	ik beltzuri, nik itzuri	tú (te pones) ceñudo, yo me escapo	-

Baiña gaurko teknolojiak kontuan artuta ontzat artu dogu 400.000 txartelen gaia argitaratzea, Araba´ko Foru Aldundiaren Agiritegian dagozan lez. Onein gaia batzea trebeak diran talde batek egin dau Jokin Astobiza buru dala. Lan au burutu al izan dabe Agiritegiaren Zuzendari dan Jesus Sobron jaunaren alkar-lanari eskerrak eta euskeraz-arloko trebe zuzendaritza, egitura, iztegiak eta abar Olazar eta Uribe´tar Martin jaunaren kontura dala.

Aurreratu dagigun emen www.euskerazaintza.org wew orrian agertuko dana. Onen proba-orriak zuzendaritza onetan ikusi leitezkez.



Asiera baterako, zelakoa dan jakiteko ikusi egizuez itz oneik:aita, begi,esne (ori euskeraz eskatu ezker) eta aita, ojo, edo leche erderaz eskatu ezker.

Itz inein esangurea eskatzeko, idazleak nortzuk diran eta “itz baiño ez” edo “antzekoak be bai” kontuan doguzela.

Maillak deritxon saillean , gramaika-arloa aztertu daikegu

Iturria la fuente saillean edo jatorria dan iztegian (Azkue, Muxika, Lhande...)

Dana dala, gure elburua CD edo DVD baten banatzea da orregaz batera ASMO IZTEGIA ETA BERE EGUNEAN ARGITARATU ZAN LEZ doala.

Papelean argitaratzea karua da gure ekonomirako eta gai oneik iñok nai ba´dauz deitu begi EUSKERAZALEAK´ena dan urrutizkin onetara:94 423 53 22 edo gure bidalgo elektronik onetara info@euskerazaleak.biz

Gure itxaropena gai guzti oneik urte onen azkenerako gertu eukitea da.

Arduradunak

JOSETXO

Ona emen Joxe Manuel Etxeita'k idatzitako liburu ederra. Batzuri ezezagun xamarra egingo jake euskal idazle berezko au; ori dala-ta argibide bi-edo emon bear geunkez:

Etxeita'tar Joxe Manuel Mundaka'ko Etxeita etxean jaio zan, bultzibide-geltoki ondoan. Gazterik mariñel sartu, ta bein itxasketan polito jardun ondoren, beronegaz zerikusia euken kargu goituak iritxi ebazan.

Euskalerriarentzat gogotik lan egin eban gizon onek, bere bizitzako azken urteak euskera-irakaskintzari eskiñi eutsazala. Nori irakasten eutsan? Bere lau billobai, ain juxtu be.

Bein batean, eguneroko ikaskaia opatu ta gero, oeratu egin zan. Argi-txirrintan, ez zan barriz jagiko. 1842'an sortu, ta 1915'ean urrindu jakun Etxeita.

"Josetxo" ez dozue bere emoi bakarra: "Mari Jesus ta Iru Arzañak" dalakoaren bidez saritua izan jakun. Etxeita'ren bizia, sarritxo "Josetxo" bere pertsonajearenagaz alderatu edo erkatu dabe.

Elebarrien mataza orrelan arilkatuten da:

Ara nun ijitu biak Mundaka urreko basarri batetik igaro ziran. Bertaoai ume bat biziro atsegin jaken, ta erosi be egin eban. Etxekoek luzaro itxogin eutseen umearen benetako gurasoai, baiña oneek ez ziran azaldu.

Maitagarria zan Josetxo, guztiz euskelduna (aur-artzalleai berba batzuk euskeraz bota eutsezan), guzti-guztiak begirunez ikusia, bere lagun baten gurasoak izan ezik, Eladi'renak ain zuzen be; aur edo sein a bort utsa zalakoan, euen alabeari aregaz olgetan ibiltan galarazo egin eutsoen.

Josetxo'k itxasoa maite eban, ta mutil-koskorra zala, itxasontzi batera sartu zan itxastar. Bai joan-etorri, aranoako, an-emenka ibilli a mutil trebe ta oldarkoi a.

Urteen joanean, Eladi'k be senargei batzuk izan ebanzan. Ezkondu gura ez ebalako, amaika nekaldura ta nairgabe jaso erazan eutsoezan bere atetamak. Josetxo'gazko gorroto bizi a ordea, itzaltzen asia jaken baiña.

Pilotu-agiria be jaso zuan.

Bein Ameriketara urten zan, jungoikoak bakarrik ekiala noz etorriko zan. Itxasoan gorabera asko ezagutuz, etxaguntza batean asi zan bearrean.

Ezkontzeko egokiera bai, baiña Eladitxu bere biotzean.

Gudaketa zala, diru-txintxiñetan itzuli zan bere jaioterriara, ta Eladi'gaz ezkondu zan. Bere jatorrizko guraso ta arrebak be ezagutu ebazan: umetxua ostu eban motxaillamea lekaike sartu zan, eta Josetxo'ren gurasoai azkespen edo barkamen eske ageri jaken, beren seme galduaren zuzenbidea emanez.

Josetxo gurea, zorionean bizi zan bere emazteagaz. Ikusten dozuen lez, eleberriak amai ona dauko.

Orain, idazti onen edeslariari buruz zerbait esan daigun.

Gauzaldekoa (objetihoa) dala autortu bearra dogu, ez da-ta pertsonajeakaz naasten. Alan da guztiz be, norberaldeko (objetihoa) gauza bat edo beste sartu dau, alegia:

"Onbidea beti da onbidea, ondasunak sarri ekarten dituana!" Orra or zilleizti edo moral ikutua.

Edo-ta:

"Arantzaz beteriko sasiak bidean egon arren, eroape-naz ta gizabide onagaz bigunduten dira bideak, aurrera jarraitzeko".

ANTZEZLEAK EDO PERTSONAJEAK.

Josetxo: asmozkatu edo idealizatu xamarra dirudi, oben eta marketsik bagakoa. Guztiz biotz-on dozue, otzana, begi-onekoa, kuxkuxean sekula egingo ez dauana, egiaztuna, yayoa. Guzti-guztiak miresten dabe, baten-bat kenduta, ta baten-bat onek, bere jatorri illuna dala-ta. Askotxok Jaungoikoaren oparizat eban. Akatsik bakoa zan ala?

ELADITXO: ardia baizen apala. Josetxo asiera-asieratik begikoa eban. Bere gurasoakandik barriz, nekaldi ta zigor eurrez artu ebazan (azkenean oneek euren gangar-kerizaz jabetu ba'ziran be). Dana dala, bere aitamai itzal osoz begiratu eutsen beti.

JUANA MARI: Josetxo'ren amaordea (amaizuna). Emakuma au txit esangiña ta arduratsua zan. Biotz minbera, goxo-goxoa eban.

TXOMIN TXIKI: bere senarra; langile sutua; baserri ta artzaintza-lanai eragoien.

MARTIN ZALDI: Ondartza baserriko morroia izana.

ERMIKEN: Eladi'ren aita dirutsua. Aize aundiak buruan, inbiriak jota. Azkenean bere alabeari Josetxo'gaz ezkonteko baimena pozarren emon eutsan.

MASIMA: bere senarra baiño ere arroputzagoa, azkenean onbideratu egin zan.

Josetxo'ren amari Anatole eritxan, Erromulo aitari ta Jule arrebeari. Bi anai-arrebak orein bana euken belarri azpian.

Etxeita'ren euskereari buruz be zerbait esan bear dogu:

Euskera errezegia salatu oi dautsoe batzuk, ta ori diñoenak errezoia izan leie neurri batean bada, beiñipein. Benetako sakontasuna ta aberastasuna aurkitu gura baldi ba'dozuz, bear ba'da Etxeita ez jatzu egokiena izango. Itz zailak, egia esateko, berez ez dira gaxak, baiña oitura ezak eta itxikeriak zail-arazo egin leiez. Etxeita'k berak be, badarabiz olako berba paretxuren bat:

AKIAKULA:

ALGALA:

ONDAMU: bekaitza, inbiria.

ESANGIÑA: obediente.

AZKORTU: animatu, e.a.

Bere esakunak ez dira naastuak, baiña motelak be ez, eta onek danak bizitasna emoten dautso bere edeskitza edo narratibeari.

Etxaburua'tar Asier'ek

EUSKAL ADITZ-JOKOA, ¿PASIBOAN ALA AKTIBOAN SORTU ZAN?

Oiñarte ZER aldizkarian atara dituguzan lantxoekaz argudio ta lekuko ugari aurkeztu dituguz euskal aditzaren “pasibotasuna” argi ta garbi ikusteko bere sorreran, au da, izan aditza konjugatzen dala bakarrik ta oneri beste aditz guztien erroa loturik, onela : ditza (>dira) ‘son’ + -u-, *edun-en erroa > ditu ; naiza ‘soy’ + tor, etorri-ren erroa, > naizator..., gaurko Gip. natxa-tor... eta Biz. naja-tor... etab. etab. Pasiboari esker probatzen dogu gure aditz-jokoa nola sortu ta garatu zan ezerezetik, utsetik, beste iñongo izkuntzetatik ezer artu barik, bere beretik jaiioaz. Aditz-jokoari dagokionez, ez dauka amarik, berbera da bere ama. Aktibotasunari jarraituz ostera, iñork ezingo dau iñoiz be olako albisterik aurkeztu ta probatu.

Baiña, beste aldetik, euskaldunok, gaur egun, aktiboan “sentitzen” dogu geure aditza. Ia euskaldun guztiak egon dira ta dagoz pasiboaren aurka ta aktiboaren alde. Edozelan be, guk diñoguna da aditz-jokua asmatu zanean, pasiboan edo izan aditz laguntzaillearen bitartez sortu ta garatu zala beste iñongo izkuntzen laguntza barik eta gaur bertan be, euskalki batzuetan banandurik, baieztapen onen lekuko asko bizirik dagoz ta ondotxo probatzen dabe bere sorrerako pasibotasuna.

Bestalde, guk “aktiboa” deitzen doguna, jakintsuak “ergatiboa” deitzen deutsee euskerako eta beste ainbat izkuntzetako aditz-jokoei. Aita etorri da, ‘el aita ha venido’, aita, sujeta, “nominatiboa” da, baiña aita-K ekarri dau ‘el aita ha traido’, amaierako K ori ergatibo marka da ta aita-K ez da “nominatiboa” deklinatua baizik. Orduan, “aktiboak” eta “ergatiboak”, antzeko itzulera daukenez beste izkuntzetara, esangura berbera emoten deutseguz gure idazkietan. Baiña, ipiñiko bagendu Biz. bizirik dagoan etorri nintzoan edo nintzuan ‘venido era yo habido por tí’, literalki, edo ‘yo te era venido’, gaurko esanguran, pasiboa litzake, au da nintzoan/nintzuan < nintza-u-a-n < nintza(n) = (izan konjugatua) + -u-, *edun-en erroa.

Aztertu dagiguzan, orduan, zer arrazoiak plazaratu dituezen “aktiboa” edo “ergatiboaren” aldekoak. Pasiboaren arerio sutuenetariko bat Koldo Mitxelena izan zan. Bere “Sobre la Historia de la Lengua Vasca II”, 1954an, esan eban: “euskal gramatikalari geienak ukatu ta baztatu ebela “lingüista profesionalak” onartzen eben teoria pasiboa”. Amen ez dago argudiorik ezer probatzeko. Jarraitzen dau esanez: “pasiboak” zeatzago ta literalki itzultzen dabela aditzaren esangura beste izkuntzetara”. Argudiorik baldin balego amen, pasiboaren alde izango litzake.

Geroago onela diño: “...la palabra “activo” viene rodeada de cierta aura de ímpetu, decisión, virilidad ; “pasivo” por el contrario parece suponer cierta debilidad, indecisión y hasta cobardía”. Eta baita be, izkuntzaren bitartez bereizten dirala erriak: “...en viriles y afeminados, pueblos dominadores y pueblos con alma de esclavos”. Ez zineztekoa da gauza oneek irakurri bearra izatea. Amen ez dago iñolako argumenturik. Benetako argudioren orde zedozer ipiñi bere gogoak agindu deusolako. Aurrerago, baita be esaten dau:

“pasiboa aitatzea be euskalerrriaren gizatasuna iraintzea da”. ¿Zer da au, argudio bat ala astakeri bat ? Geroago diño: “zer ganora dauka pasiboa leporatzea aktiborik ez daukan izkuntza bati”. Gero ipiñiko dituguz, euskerak legez, beste izkuntza batzuk pasiboa dabenak bakarrik aktibo barik.

Asiera baten, “aktiboaren” alde ta “pasiboaren aurka-koen arrazoi ustelak” euskaldunak “aktiboan” sentitzen dogula aditz-jokoa da, ta bestea, ezin dala izan izkuntzarik “pasiboan” soillik “aktiboa” ez badauka aurrez aurre. Geroago, filologo ta izkuntzalari modernoak teoría “ergatiboa” defenditzen dabe buru-belarri, 1929an, atzerritar batek itz ori asmatu ezker. Berez, egia esan, ergatibo itzak ez du bereizten “aktiboa” edo “pasiboa” dan, adibidez: aree-K ekarri dituzte ‘ellos han traido’, naiz eta guk gaur aktiboan “sentitu”, bere estruktura pasiboan dago bete betean eta aree-K ergatiboko -K- dauka eta bestea, ni-K ekarri nuen ‘yo traje’, nuen ori zuen-en zentzu pasiboa aktibora aldatu ezker analogiaren bidez sortu zan eta adizki ori bete betean aktiboan dago, baiña amen be, ni-K ergatiboa da bere -K- ta guzti. Azken finean “ergatibo” itzak ez dau ezer be argitzen eta ez deusku ezertarako balio.

Filologo ta izkuntzalarien artean ospetsuenetariko bat, “gaurko euskal ergatiboaren” alde, Robert L. Trask izan da ta eredu lez aiatatu dabe jakintsuak eta Euskaltzaindiak be. Ipar Amerikan argitaratu eban lan baten aztertu eban ergatibotasun ori ta danak jarraitu deutsoe. Baiña, jakintsu orreek ez dabe esan jaun onek ipiñitakoak lan orren 208 orrialdetik aurrera, ez zinezteko “kasualitatea”. Ara: “gaurko euskal ergatiboa pasibo zar batetik dator”. Eta jarraituz: “Hindi, Urdu eta Punjabian izkuntzen ergatiboa pasiboan sortu zan aktiboko zentzua aldatuz, eta gañera sorrerako pasiboa begi bistan dago”. Euskal aditz-jokoari gertatu jakon gauza berbera. Geroago, Polinesiariko izkuntzak aiatatuz, diño: “bere ergatiboko estruktura ta pasiboaren estruktura berberak dira”. Aurrerago, Hale (1970) izkuntzalaria aiatatzen dau, idatzi ebalako: “Australiariko izkuntzen ergatiboa aktiboko zentzua aldatuz sortu zan”. Jarraian: “Georgiariko ergatiboa be pasibo zarretik dator”. Oingo au be arri bitxia guretzako: “Transitiboko “sujeto paciente” dalakoa euskal ergatiboan, sorreran, pasiboko “sujeto pasibo” izan zala (intransitiboko sujeta = aita da edo zan) ta teoría au euskal aditz-joko guztiari dagokiola, nuen eta bere kideak izan ezik”. Orixe berbera da guk esaten eta probatzen doguna. Geroago: “euskal ergatiboa pasiboa izan zan aurretik”. Urren-go au be baieztapen bitxia: “baliteke, ni-N-duen-en eta gi-N-duen-en azaltzen dan N ori pasibo marka zar bat izatea”. Bai orixe, niNTZan eta giNTZan-en aztarnak dira eta baita be jarraian ikusten dan D be, niNDuen, giNDuen. Orrela jarraitzen dau berak be, esanez: “-N- ori pasibo marka izan bearean izan-en adizkia izan liteke”. Beste bitan be aiatatzen dau euskal ergatiboa pasibatik datorrela. Edozelan be, Euskaltzaindiari ez jako interesatzen gauza oneek argitzerik, naiz eta euskearen onerako izango litzakezan.

Iker Joseba Laka Guenaga

GEIGARRIA:GURE ALDIKO FILOSOFIA ESPAÑA

XIX-XX gizaldiak onak izan dira folosofi-arloan. Iru gai daukaz:Gogo-bizitza Balmes´ek,dana-bardintasuna edo “errelatibismoa” Ortega y Gasset´ek eta mugako metafisika Leonardo Polo´k.

XIX GIZALDIA

JAIME BALMES(1810-1848) da onena.Bere aldian poztasuna ta sena falta dirala diño.

Sena filosofiaren iturria da:Aurreko gauzak diran lez artu bear dira eta or Buru-Argi-zaleen eta Idei-zaleen aurka doa.Izpilluagaz jazotzen dana dala diño filosofian jaso dana:Izpillua ondo ba-dago irudiak ondo agertzen dauz baiña apurtzen edo okertzen ba´da, irudiak be oker agertzen dira. Orrelan adimenak be.

JULIAN SAENZ DEL RIO(1814-1869)

Krause alemana eta panteista edo “gauza guztiak Jainkoagan” diñoana da gidari.

Kristiñaua da, baiña ez dogmatikua, esantziala baiño. Barruko kristiñautza nai dau, ez liturjiakoa.

Gizartean bitarteko erakundeak indartu bear dirala diño esaterako sendia, lanbideak, eskolak, alkar-teak.Orren gaiñetik gizadia maitatu eta gorago Jainkoa.

GINER DE LOS RIOS (1839-1915)

Au be krausista da eta Saenz del Rio´ren jarraitzaille Bere filosofian eskubide-arloa da nagusi.

“Institución de libre eneseñanza” sortu eban 1876n. urtean:ikasleak azterketarik ez egitekotan eta erlejiñoa aske ikasi dagiela.1936n. urtean kendu eben.

Lagun asko ta onak izan ebazan, arerioak be bai.

...

XX GIZALDIAREN LENENGO ERDIA

98´ ko taldearen inguruan larritasuna nabarmentzen da. Iru jakitun aitatuoko doguz Unamuno,D´Ors eta Ortega.

UNAMUNO (1864-1936)

Kierkegaard aurkitu eban, orduan oraindiño oso gitxi ezagutua eta onen ikuntza,danes, ikasi eban berau irakurteko ta ulertzeko:Biak ziran barruko erlejiñoaz ardura-tuak, biak kristinautza eratuan edo laterri-zalearen arerioak eta biak eben elburu erria itzartzea. Buru-bidea edo lojika eta biotz-bidea edo kardiaka bereizten dabez ondo.”Ni betiko biziko naz, ori biotzak diñostalako, naiz-ta buruak argi ikusi ez.”.Biak bizi dira “agonia”n, burrukan, sartuta.

Unamuno´ren euskaltasuna batzuk zalantzan jarten dabe, baiña berak argi esan eban Salamanka´n, Milan Astray eta Franco´ren andrearen aurrean, bera euskalduna zala, baiña Bilbao´n Aldundiak iragarri eban Institutoko euskerearen katedra´ra aurkeztu zan Azkue´gaz eta beste batzukaz batera eta galdu egin eban. Orrek itzi eban

suminduta eta arrezkero euskerea maite dau, idatzi be bai zerbait, baiña etxe-bizitzarako izkuntza dala diño eta illeta ospetsu bat egin bear jakola.

EUGENIO D´ORS(1882-1954)

Pentsalari askea da, ez Unamuno´ren eta Ortega´ren bidekoa.

Eragin katalandarra ezarri eutson filosofiari:Noucentrismo.

Gai asko eta batu-eziñak aztertu ebazan

Seny edo euskeraz “sena” esango geunkena goratzen dau,zentzuna.

ORTEGA Y GASSET (1883-1955)

Europa´ko filosofiak ondo ikasi ebazan eta Marburgo´ko eskolan egoan Kant-zale barrien bidea artu eban.

Idei-zaleen aurka agertzen da: “Ni eta nire ingurua” artu bear dira kontuan.

Gauzak artzeko bakoitxak bere ikuspegia daukala diño,”perspectivismo” da ori.

Gizaki gertatuak eta erritarren moltzoa edo masa bereizten dauz, eta aukeratuen alde dago “Reveliòn de las masas” (1929) aiztu barik. Idei barriak daukezenak gitxi dira, baiña gaur “masak” datoz eta or ez dago baliorik-eza baiño.

...

XX GIZALDIAREN II ERDIA

Ortega´k sortu eban Madrid´eko Eskolea eta emen daukaguz Garcia Morente, Zubiri, Gaos, Maria Zambrano, Ferrater Mora, Cruz Hernandez, Lopez Aranguren...

Akinotarraren jarraitzaille barriak be or dagoz.

XABIER ZUBIRI (1898-1983)

Aurreko gauzak bear diran lez artzen ez dau jakin filosofiak eta zertasuna, esenzia, ondo ulertu bear da.

Adimenak zomau egiten dau eta zentzunak be ulertu. Biak ulertzen dabe.

MARIA ZAMBRANO (1904-1991)

Gauzak olerkaria ren antzera ulertu bear dira, sinpatia-gaz.

JULIAN MARIAS (1914)

Bakoitxak dauko bere ingurua eta “circunstancia”.

Bizitza bizi izatea da eta giro baten bizi gara, etorkizunari begira.

Gai asko ta sakonak aztertzen dauz.

LEONARDO POLO (1926)

Balmes dau asiarea ta oiñarria.

Gauzak pentsabidea baiño arago dagoz.

Giza-arloan gauza bi dagoz argi:Askatasuna ta doia.

Personalisten giroan dago.

Olazar´tar Martin´ek.

BERTSO ASMAKIZUNAK

1

Nire transportadore
Kriston pisuakin
Letra asko garraiatzen
Baititu berekin.

Oso koñazo da ta
Ez du motorrarik
Baina bi gurpil ditu
Ezta bolanterik.

Ander Ilarri

Mokila

4

Berdea eta andia
Luzea ere bai
Idatzen dugunean
Borratzen da lasai.

Andereñok edo guk
Idatziko dugu
Eskola guztietan
Ikusten ditugu.

Erika Morales

Arbela

7

Liburu bat bezala
Dena bidez dago
Oso lagungarria
Galduta badago.

Oporretan kotxean
Ara eta ona
Leku bat ta beste bat
Benetan da ona.

Oiane Zelada

Karretxerako mapa

2

Borobila da eta
CDak sartzeko
Zertako balio du?
Dantza egiteko.

Matxalen Bezos

5

Kaxatxo grisa dauka
Ta CDak ditu
Troyano ta birusak
Batzutan baditu.

Arekin jolasten naiz
Musika entzutera
Gero Interneten ta
Azkenik ixtera.

Asier Izkue

Ordenagailu

8

Gure eskolakoak
Berdeak dira ta
Guri ematen digute
Deskantsu galanta.

Ni batean nago ta
Beste denak berdin
Klasean beti gaude
Patxada andiak.

Uxue

aukiak

3

Objektu onek ditu
Milaka kolore
Kristalezkoak dira
Ta soka baita ere.

Diskotekan baitago
Jendea argitzen
Nire ama or dago
Nirekin dantzatzen

Ekaitz

Lanpara

6

Oso azkarra da ta
Aurpegi ta ipurdi
Ez da liburutxoa
Baina ala dirudi.

Izkuntza desberdinak
Itz egiten ditu
Zerbait ez badakizu
Antxe begiratu.

Ane

Hiztegia

9

Bi modutakoak daude
Jendeak darama
Iru gizontxo ditu
Eta amabi dama

Adela

erloju

IGARRI

10

Batzutan onak dira
Bestetan ez onak
Normalean jendeak
Izaten ditunak.

Ez zara aspertuko
Beraien artean
Jolasteko gustura
Ta lanak utzi an.

Nik aitortzen dizuet
Nireak onenak
Nik asko dituk eta
Denak atseginak.

Maite

lagunak

11

Beti etxean dago
Da oso motela
Ta berak pentsatzen du
Ain polita dela.

Antenekin dirudi
Estraterrestrea
Letxugak jaten ditu
A ze desastrea!

Ander Imanol

Barrazkilloa

12

Ingeles ta musika
Beti desastrea
19 lagunek
osatu taldea.

Gaizka

Ikas-gela

13

Txonogorritxo gisan
Janzten zaigu dena
Bizarra dauka baina
Ez da Gandalfena.

Magia egiten du
Ez da Txan magoa
Eta konpetentzia
Du Olentzeroa.

14

Batzutan biurria
Bestetan laguna
Aitak estrangulutzen
Orduan iluna

Bere arrebarekin
Da pixkat tuntuna
Kalean jolasteko
Patineteduna.

Bere amaren ilea
Da urdin iluna
Milgaus bere laguna
Betaurrekoduna.

Eskolako gaiztoekin
Da oso iztuna
Andereñorekin da
Benetan astuna.

Mikel Castrillo

Brats Simpson

15

LABORATEGIAN

Ni laborategian
Nabil egunero
Ni "Dexterren" antzera
Lanean goizero.

Ere askotan. Gauetz
Edo arratsaldez
Baino gero oera
Joaten naiz nekez.

Lander

Aita Nerea

Probetak artzen ditut
Likidoak naasten
Sarritan PUF!!! Egiten du
Bestetan leertzen.

Nere ordenadore
Moderno baina
Bere mentalitate
Berea badauka

Ander Ilarri

ASTEBURUA

Gaur ostirala da ta
Biar larunbata
Badaukat nik gogoa
Prestatzeko tarta


Tarta jango dut, eta
Gero jolastera
Azkenean aspertu
Ta danok estera

Biamonea da
Igande goizea
Eta niri egin zait
Pixka bat luzea

Arratsaldean berriz
Nago nekatuta
Asteburua joan ta
Akabo kantua

Maite Uriarte

6. EDER-ZALEAK



Edertasunaren munduan zomorroak taldeko lan bereiziak egiten dabez, argiagaz, eresagaz, saltuakaz, mozorro-tuta, etxeak egiten. Artistak dira.

ARGIDUNAK

Era arrigarri baten, illunetan argia agertzen dabe, esaterako epertargiak.

Txingar iziotu baten antza dauko urriñetik eta eskuan artu ezker epela da. Sabel-azpian daukazan lerro bi dira argidunak. Ibillian gora ta bera dabil.

Argia, orain argiago ta gero illunago. Ameriketan, landetan, argi orreik dantza-aldiak egiten dabez.

Ego-Ameriketan kolore askogaz agertzen dira: zuri, beillegi edo ori, orlegi eta gorri.

ERESLARIAK

Gabaz kanpoan entzuten doguzan zarata asko, geienak, zomorroak egiten dabez. Bakoitxak zarata bakarra dauka, iñoz bi edo iru.

Gogoratu txirri-txirria edo txitxara. Zarata ori ateraten dabenak euren ego gogorak dira.

Asko batera abeslari dagozanean, guztiak nastatzen dira eres-aldian.

Saltamatxinoa be abeslaria da.

SALTARIAK

Zomorro askok atzeko ankak aundiagoak daukez eta anka aundi onei eraginda gora egiten dabe salto. Salto edo jauzi au 30 zm'koa izan leiteke.

ANTZ-ALDATZAILLEAK

Zomorroak zaleak dira euren bizitzan itxurea edo antza aldatzen. Euren buruak babesteko aldatzen dabela antza diñoe jakitunak, orrelan iñok ikusi ez dagizan, eta iñoz itxura bildurgarria be artzen dabe, esaterako zuge-antza. Beste batzutan euren buruak apaintzeko edo arro-arro jazteko izaten ei da.

Larrosearen zomorroak larrosa-antza artzen dau.

ETXEGIÑAK

Zomorroak euren edertasun-zale izatea etxe ederrak egiten agertzen dabe, arkitekto argien antzera.

Jakitori aundia dago erleen sei-zoko esti-lekuetan.


Zugatzen abar-artean, naiz lurpean ikusten doguz zomorroen abiak, sare estalduta eta batzutan onik edo enbutu antzera egiñak dira, beste batzutan adarraren antza eukiten dabe, lerrondo edo piñuetan be euren atxeak agiri izaten dira eta ortik urtetan dabe koko edo oruga ibiltariak, gero mintxi biurtuko diranak.

Iñoz igaleen barruan be egiten dabe abia edo etxea, edo zugatzaren enbor-zulo batek daukon uts-unean, edo orrien atzeko aldeetan edo abarretik ezkegita madari baten antz eta neurrikoa.

Etxe ederrak dira kakarraldoak egiten dauzanak, gordelekuak alkarren gaiñean dirala.

Lur-azpiko etxeak erdian bide bat eukiten dabe eta bide onen alboetan arrautza-lekuak, lau edo bost.

Olazar'tar Martin'ek



BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

bbk⁺

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO